EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
Inklusio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Inclusión

INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA

MEMORIA 2025

Edukia

1. SARRERA 3
1.1. Memoriaren helburua 3
1.2. Arau-esparrua 3
2. OSAERA 3
2.1. Egitura 3
2.2. Osaera eta partaideak 4
3. EGINDAKO BILERAK 5
3.1. Bileren egutegia 5
3.2. Bilerei buruzko datuak 5
4. 2025EKO BALANTZEA ETA BALORAZIOA 6
4.1. Lorpenak eta aurrerapenak 6
4.2. Antzemandako zailtasunak eta erronkak 7
4.3. Hobekuntza-proposamenak 8
5. AZTERKETA, GENERO-IKUSPEGIA APLIKATUTA 9
5.1. Azterketa 9
5.2. Erronkak eta proposamenak 13
6. AZTERKETA, HIZKUNTZA-IKUSPEGIA APLIKATUTA 14
6.1. Azterketa 14
6.2. Jardunbide egokiak eta hobekuntza-arloak 14
7. AZTERKETA, INGURUMEN-IKUSPEGIA APLIKATUTA 15
7.1. Azterketa 15
7.2. Jardunbide egokiak eta hobekuntza-arloak 16
8. ONDORIOAK 17
9. ERANSKINAK 18
9.1. I. ERANSKINA – Osoko bilkuraren osaera 18
9.2. II. ERANSKINA – Batzorde iraunkorraren osaera 20
9.3. III. ERANSKINA – Ibilbide partekatuen lantaldearen osaera 21

1. SARRERA

1.1. Memoriaren helburua

Inklusiorako Euskal Kontseiluaren urriaren 22ko 307/2024 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, «*Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18.5 artikuluaren arabera, urtero, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren kudeaketa-memoria bat idatzi behar da, eta osoko bilkurak onartu behar du, eta horren berri emango da jendaurrean, Eusko Jaurlaritzaren Gardena gardentasun-atariaren bidez*».

Memoria honen xedea da dokumentatu eta ebaluatzea Inklusiorako Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, IEK) 2025. urteko jarduera, argi eta sistematikoki azaltzeko nola garatu den kontseiluaren lana. Memoria baliagarria izango da bai kontuak emateko, bai ikaskuntzak eta hobekuntza-arloak identifikatzeko.

1.2. Arau-esparrua

Hauek dira IEK arautzen duten arauak:

- 15/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena.
- 14/2022 LEGEA, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.
- 307/2024 DEKRETUA, urriaren 22koa, Inklusiorako Euskal Kontseiluarena.

2. OSAERA

2.1. Egitura

Gaur egun, hauxe da IEKen egitura:



2.2. Osaera eta partaideak

a) Osoko bilkura

I. eranskinean atxiki da gaur egun nortzuek osatzen duten osoko bilkura.

b) Batzorde iraunkorra



II. eranskinean atxiki da gaur egun nortzuek osatzen duten IEKen batzorde iraunkorra.

a) Ibilbide partekatuen lantaldea



III. eranskinean atxiki da gaur egun nortzuek osatzen duten ibilbide partekatuen lantaldea.

3. EGINDAKO BILERAK

3.1. Bileren egutegia

	Osoko bilkura	Batzorde iraunkorra	Ibilbide partekatuen lantaldea	
	2025-01-09			
		2025-02-27		
	2025-01-23			
	2025-03-28			
			2025-05-20	
			2025-06-23	
	2025-07-24			
			2025-09-24	
		2015-10-03		
	2025-10-07			
			2025-11-05	
	2025-12-11			
GUZTIRA	**6**	**2**	**4**	**12**

3.2. Bilerei buruzko datuak

OSOKO BILKURA	Partaid.	%a	Gonb.	GUZTIRA	Formatua	Iraupena	Hizkuntza
2025-01-09	42	89	10	**52**	Aurrez aurrekoa	1h 6 min	Gaztelania
2025-01-23	35	74	4	**39**	Online	33 min	Gaztelania
2025-03-28	35	74	6	**41**	Online	36 min	Gaztelania
2025-07-24	35	74	9	**44**	Online	40 min	Gaztelania
2025-10-07	32	68	7	**39**	Aurrez aurrekoa	1h 5 min	Gaztelania
2025-12-11	28	60	9	**37**	Online	38 min	Gaztelania

BATZORDE IRAUNKORRA	Partaid.	%a	Gonb.	GUZTIRA	Formatua	Iraupena	Hizkuntza
2025-02-27	15	100	8	**23**	Aurrez aurrekoa	1h 13 min	Gaztelania
2025-10-03	14	93	9	**23**	Online	1h 35 min	Gaztelania

IBILBIDE PARTEKATUEN LANTALDEA	Partaid.	%a	Gonb.	GUZTIRA	Formatua	Iraupena	Hizkuntza
2025-05-20	22	92	10	**32**	Aurrez aurrekoa	2h 30 min	Gaztelania

2025-06-23	21	88	3	**24**	Aurrez aurrekoa	2h	Gaztelania
2025-09-24	19	79	10	**29**	Aurrez aurrekoa	2h	Gaztelania
2025-11-05	15	63	3	**28**	Aurrez aurrekoa	1h 30 min	Gaztelania

4. 2025EKO BALANTZEA ETA BALORAZIOA

4.1. Lorpenak eta aurrerapenak

a) Batzorde iraunkorraren sorrera eta lehen bilera.

211/2023 Dekretua onartu ondoren, batzorde iraunkorra eratu, eta lehen bilera egin zen. Organo hori txikiagoa eta operatiboagoa da, eta bere helburua osoko bilkuraren funtzionamendua arintzea da.

b) Lehen lantaldea sortzea.

Lehen etapa honetako mugarri gakoetako bat da lehen lantaldea martxan jarri izana. Lantalde horren jomuga laneratzeko eta gizarte-inklusioko ibilbide partekatuak garatzea izan da. Lantalde horrek aukera ematen du erronkak modu tekniko, partaide eta zeharkakoan jorratzeko, ezagutza partekatua eta eredu bateratu baten eraikuntza sustatuz.

c) Funtzionamendu egonkorra.

2025eko ekitaldian, IEK osatzen duten organoek egoki funtzionatzea lortu da. Organo horiek funtzionamendu-dinamika egonkorra hartu dute.

d) Bertaratze altua.

Lehen aldi honetako adierazlerik esanguratsuenetako bat da kontseiluaren bileretara jende asko bertaratu dela. Osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren deialdi ia guztietan gainditu da % 70eko bertaratzea, eta hainbat saiotan kide guztiak bertaratu dira.

e) Espediente elektronikoa

2025ean, urrats esanguratsua egin da kontseiluaren kudeaketa administratiboan, alta eman baitzaio Tramitagune plataforman, kide anitzeko organoen familian. Aurrerapen horrek aukera eman du agiri guztiak espediente elektronikoetara iraultzeko, eta, hala, artxibo antolatuagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa bultzatzeko.

4.2. Antzemandako zailtasunak eta erronkak

a) Online bilerak.

Formatu telematikoak zailtasun teknikoak eta antolakuntzakoak eragin ditu, asko direlako osoko bilkura osatzen duten pertsonak. Hauek dira, besteak beste, antzemandako eragozpen nagusiak:

- Akatsak mikrofonoetan.
- Zailtasuna konektatutako pertsonak era egokian identifikatzeko.
- Konplikazioak bozketak egiteko.

b) Aurrez aurreko bilerak egiteko espazioa.

Zaila izan da aurrez aurreko bilerak egiteko espazio egokiak aurkitzea, osoko bilkuraren tamainaren ondorioz. Gaur arte, aurrez aurreko bi bilera baino ezin izan dira egin, biak Euskaldun Berria ekitaldi-aretoan. Espazio hori zabala da, baina ez du partaidetza horizontala errazten, duen banaketak (altxatutako gune bat dago pertsona batzuentzat eta besaulkiak gainerakoentzat) hierarkia-sentsazioa ematen duelako eta horrek zaildu egiten duelako sustatu nahi den lankidetza-grina.

c) Partaidetza eta esku-hartzeak

Kontseilua osatzen duten kideak ugari direnez eta haietako askok ez dutenez elkar ezagutzen, zaila izan da bileretan partaidetza aktiboa izatea. Antzeman da kideek nolabaiteko errezeloa izan dutela esku hartzeko edo hitza hartzeko. Horrek mugatu egin du eztabaidaren aberastasuna eta ikuspegien trukea.

Horren harira, osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean —lantaldea ez da kontuan hartu— **22 partaidek 46 esku-hartze** egin dituzte **8 bileratan**[1], hau da, batez beste, bospasei esku-hartze saioko.

Horrek agerian jartzen du ezen, kide kopurua kontuan hartuta, partaidetza urria izan dela, eta, beraz, mugatu egin dela kontseiluak eskain lezakeen ikuspegi-aniztasuna aprobetxatzeko aukera.

Nabarmendu behar da zaila dela osoko bilkura bezain zabalak diren foroetan esku hartzea, hainbeste kide egoteak mugatu egiten duelako eztabaidaren arintasuna. Horrez gain, bilera telematikoen berezko murrizketak daude, elkarrekintza gutxitu eta oztopo teknikoak sortzen dituztenak. Halaber, era honetako organoetan partaidetza-kultura ez dago guztiz errotuta, eta IEK hasierako funtzionamendu-fasean dago.

[1] Erregistratu diren esku-hartzeetan ez dira zenbatu kargu nagusiek egin dituztenak —Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua, Enplegu eta Inklusio sailburuordea eta Inklusio zuzendaria—, haiek nahitaez parte hartu behar dutelako saioen dinamizatzaileak direnez gero, eta, beraz, hori ez delako eztabaidako borondatezko esku-hartze bat.

4.3. Hobekuntza-proposamenak

a) Bilera telematikoen formatua optimizatzea

Online saioen efikazia hobetzeko, proposatzen da indartzea eskuragai dauden baliabide teknikoak eta ezartzea baliabideok erabiltzeko jarraibide argiak (aurretiazko soinu-probak, partaideak nahitaez identifikatzea, hitz-hartze antolatuak eta bozketa-sistema arinagoak).

b) Aurrez aurreko espazio egokiak eta parte-hartzea bultzatzen dutenak bermatzea

Gomendagarria da aldez aurretik identifikatu eta erreserbatzea espazioak, aukera ematen dutenak antolaketa zirkular edo horizontala ezartzeko. Hala, elkarrekintza sustatuko da, eta egitura hierarkikoak saihestuko dira. Iradoki da espazio alternatiboak azter daitezela Eusko Jaurlaritzan eta instituzio kolaboratzaileetan.

c) Partaidetza aktiboa sustatzen duten dinamikak bultzatzea

Osoko bilkura jendetsua izateak zaildu egiten duenez esku-hartzea, proposatzen da sar daitezela metodologia partaide espezifikoak: lantalde txikiak saioen barruan, hitz-hartze egituratuak... Lantaldeetan izandako esperientziak agerian jarri du esku-hartzeak ugariagoak edo arintasun handiagokoak direla, bai taldeak txikiagoak direlako, bai parte hartzeko metodologiak aplikatzen direlako, hots, kideen aurretiazko prestaketa eta inplikazio aktiboa errazten dutenak.

d) Barne-kohesioa eta elkarrekiko ezagutza indartzea

Kontseiluko kide askoren artean ez dagoenez aurretiaz harremanik, deserosoa izan daiteke esku hartzea. Gomendagarria da espazio laburrak gaitzea saio edo topaketen hasieran edo amaieran, kideek hobeto ezagut dezaten elkar eta konfiantza handiagoko giroa sor dadin.

5. AZTERKETA, GENERO-IKUSPEGIA APLIKATUTA[2]

Beharrezkoa da IKE aztertzea genero-ikuspegia aplikatuta, aurrera egin dadin partaidetza eta erabaki publikoko organoetan benetako berdintasuna lortzeko bidean. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak) 3. artikuluan nahitaezko bihurtzen du ordezkaritza orekatua bermatzea —genero bakoitzeko gutxienez % 40— EAEko sektore publikoko kide anitzeko organoetan. Printzipio hori jasotzen du, era berean, IEKen 307/2024 Dekretuaren 5. artikuluak.

Adierazi beharra dugu inklusioaren eremua sektore oso feminizatua dela, nola bere aldagai profesionalean, hala elkarte-sarean, non emakumeak baitira, batez ere, laguntza, zaintza edo esku-hartzeko zereginak egiten dituztenak. Errealitate horrek alborapenak sor ditzake erantzukizunak banatzean eta erabaki-espazio formaletako partaidetzari ikusgaitasuna ematean.

5.1. Azterketa

i. Organoen osaera

Organoaren osaera aztertuz gero, hona hemen datuak[3]:

		Emakumeak		Gizonak		Sexu-genero disidentea[4]		Guztira
Osoko bilkura	**Guztira**	**62**	**% 66**	**32**	**% 34**	**0**	**% 0**	**94**
	Titularra	28	% 60	19	% 40	0	% 0	47
	Ordezkoa	34	% 72	13	% 28	0	% 0	47
Batzorde iraunkorra	**Guztira**	**15**	**% 50**	**15**	**% 50**	**0**	**% 0**	**30**
	Titularra	8	% 53	7	% 47	0	% 0	15
	Ordezkoa	7	% 47	8	% 53	0	% 0	15

[2] Azterketa honen ondoreetarako, kide anitzeko organoko kideen generoa balioetsi da, antzemandako genero-adierazpenean oinarrituta (izena, itxura, aurkezteko era eta abar), ez baitaukagu datu bereizirik edo pertsonek berek aitortutakorik. Hurbilketa horrek mugak ditu, eta baliteke ez islatzea zehatz-mehatz pertsona bakoitzaren benetako genero-identitatea. Hala ere, erabilgarritzat jo da lehen hurbilketa bat egiteko, jakinik beharrezkoa dela aurrera egitea informazio hori modu boluntario, errespetuzko edo autodefinituan jasotzeko sistemak taxutzeko bidean.

[3] 2025eko ekitaldian, izendapen batzuk aldatu egin dira, baina 2025eko amaierako osaera hartu da erreferentziatzat.

[4] Pertsona hauen genero-identitatea ez da egokitzen gizon/emakume sistema binario tradizionalera. Kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, pertsona ez-binarioak, genero malgua dutenak edo arau sexu-generiko nagusien kanpoko beste identitate batzuk dituztenak. Pertsona horiek aitortzea ezinbestekoa da ikuspegia benetan inklusiboa eta errespetuzkoa izan dadin gure gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuta.

Lantaldea	Titularra	16	% 67	8	% 33	0	% 0	24
GUZTIRA		93	% 59	55	% 41	0	% 0	158



IEKeko organoen osaera aztertuta, gogoeta hauek atera dira:

a) Oro har, bete egin da presentzia orekatuaren printzipioa

Organo gehienetan, bete egin da emakume nahiz gizonek gutxienez % 40ko ordezkaritza izateko printzipioa. Hala ere, ez da ehuneko horretara iritsi osaera batzuetan: osoko bilkuren ordezkoetan (gizonak % 28) eta ibilbide partekatuen lantaldean (gizonak % 33).

b) Emakumeak nagusi dira ordezkaritza globalean

Aztertutako osaera guztietan, emakumeen ehunekoa altuagoa da gizonena baino. Datu guztiak zenbatuta, % 59 dira emakumeak, eta % 41 gizonak. Nahiz eta datu hori berdintasunera bidean aurrerapen gisa interpretatu daitekeen, agerian uzten du, halaber, inklusioaren sektorea feminizatuta dagoela.

c) Ez da sexu-genero disidenteen presentziarik erregistratu

Eskuragai dagoen informazioaren arabera, partaideen artean ez da identifikatu pertsonarik sistema binario tradizionaletik (gizon/emakume) kanpo dagoen genero-identitatea duenik. Hala ere, horrek ez du esan nahi ez dagoenik, ez baita horri buruzko informazio espezifikoa jaso.

ii. Organoetara bertaratzea

Esanguratsua da, kontseiluaren osaera formalaz gain, bertaratzea ere aztertzea, hots, nor doan bileretara. Hona hemen datuak:

		Emakumeak		Gizonak		Sexu-genero disidentea		Guztira
Osoko bilkura	2025-01-09	29	% 66	15	% 34	0	% 0	44
	2025-01-23	25	% 71	10	% 29	0	% 0	35
	2025-03-28	26	% 72	10	% 28	0	% 0	36
	2025-07-24	24	% 62	15	% 38	0	% 0	39
	2025-10-07	19	% 59	13	% 41	0	% 0	32
	2025-12-11	19	% 68	9	% 32	0	% 0	28
Batzorde iraunkorra	2025-02-27	10	% 67	5	% 33	0	% 0	15
	2025-10-03	10	% 71	4	% 29	0	% 0	14
Lantaldea	2025-05-20	14	% 64	8	% 36	0	% 0	22
	2025-06-23	15	% 71	6	% 29	0	% 0	21
	2025-09-24	13	% 68	6	% 32	0	% 0	19
	2025-11-05	11	% 73	4	% 27	0	% 0	15

Bertaratze-datuak aztertuta, gogoeta hauek atera dira:

a) Bertaratzen direnen artean gehienak emakumeak dira

Egindako saio guztietan, emakumeen presentzia handiagoa izan da gizonena baino. Adibidez, 2025-03-28ko osoko bilkuraren bileran, emakumeak % 72 izan ziren, eta % 28 gizonak. Joera hori hainbat saiotan antzeman daiteke.

b) Ez dago orekarik ordezkaritza eraginkorrean

Bilera batean izan ezik, gainerako guztietan ez zen lortu, benetan bertaratu zirenak aztertuta, gizonen eta emakumeen arteko % 40ko ordezkaritza orekatua, nahiz eta kontseiluaren osaera formalak printzipio hori betetzen duen, neurri handi batean.

c) Gizonen partaidetza mugatua da

Gizonen bertaratzea % 32 ingurukoa da batez beste, aztertutako saio guztietan. Hau da, emakumeen aldean presentzia txikia dute.

iii. Organoetan parte hartzea

Hitza nork hartzen duen aztertzeak aukera ematen du balizko desberdinkeriak antzemateko eta deliberazio-botereari buruzko ikuspegi osoagoa izateko. Hori horrela, osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren bileretan hauxe izan da partaidetza aktiboa —lantaldeko esku-hartzeak ez dira sartu—:

	Emakumeak		Gizonak		Sexu-genero disidentea		Guztira
	Kop.	%a	Kop.	%a	Kop.	%a	Kop.
Partaideak	13	59	9	41	0	0	22
Esku-hartzeak	18	39	28	61	0	0	46





Adierazitako datuetatik, ondorio hauek atera dira:

a) Partaidetza generoaren arabera

Saioren batean esku hartu duten emakumeak gehiago izan dira gizonak baino. Hala ere, bi generoak daude ordezkatuta, bien ordezkaritza baita % 40koa. Datu horiek erakusten dute partaidetza erlatiboki orekatua dela.

b) Esku-hartzeen banaketa generoaren arabera

Bereziki esanguratsua da esku-hartzeen banaketa ez datorrela bat partaidetzan ageri den orekarekin. Zenbatutako 46 esku-hartzeetatik, gizonek 28 egin zituzten, nahiz eta gizonezko partaideak 9 baino ez izan. Kontrara, emakumezko 13 partaidek 18 esku-hartze egin zituzten. Beraz, batez beste, gizon bakoitzak gutxi gorabehera hiru aldiz esku hartu zuen, eta, emakume bakoitzak, aldiz, gutxi gorabehera behin. Alde horrek agerian jartzen du arrakala bat dagoela hitza hartzeko orduan.

iv. Genero-ikuspegia duten edukiak

Nahiz eta kontseiluko agendak ez dituen espezifikoki jorratu genero-desberdinkeriari lotutako problematikak, hainbat saiotan aipatu dira pobreziaren feminizazioa edo gizarte-politiken eragin ezberdina bezalako gaiak.

v. Erabilitako hizkuntza

Idatzizko komunikazioetan, ahalegina egin da genero-marka saihesten duten formula linguistikoak erabiltzeko, ahal izan den neurrian, adierazpide neutroetara joz. Halakorik

egin ezin izan denean, forma femeninoa eta maskulinoa identifikatu dira. Ez da kasu batean ere erabili genero ez-binarioa.

Ahozko esku-hartze eta partaidetzetan, gazteleraz izan direnez, joerak jarraitzen du izaten genero gramatikal maskulinoa erabiltzea forma generiko gisa. Hala ere, hainbat aldiz erregistratu da genero femeninoa erabili dela zentzu inklusiboan edo bi generoak aipatu direla. Esku-hartze horietan ere ez da erabili genero ez-binarioa.

5.2. Erronkak eta proposamenak

a) Ordezkaritza orekatua organo eta maila guztietan

Etorkizuneko izendapenetarako, komeni da sustatzea entitate ordezkatuek berrikus ditzatela beren izendapen-prozesuak, eta, beraz, sartu ditzatela mekanismoak, ordezkaritza-kategoria guztietan banaketa ekitatiboagoa bermatzen dutenak, lantaldeetan ere.

b) Oreka bileretara bertaratzean

Bileretara benetan nortzuk bertaratu diren aztertuz gero, emakumeen ordezkaritza nabarmena da. Gizonen partaidetza, berriz, batez beste % 32koa da. Patroi horrek adierazten du partaidetzan desberdinkeria antzematen dela prestutasun edo lehenespen instituzionala aztertuz gero. Gaiari heltzeko, proposatzen da mahai gainean jartzea datu horiek eta jarraipen sistematiko bat egitea bertaratzeen gainean, generoaren arabera bereizita, gizonen partaidetza handiagoa sustatzeko.

c) Partaidetza ekitatiboa esku-hartzeetan eta hitz-hartzeetan

Ikusita arrakala dagoela hitz-hartzeetan, proposatzen da sustatu dadila talde txikiagoetan lan egitea edo dinamika partaideak baliatzea, zeintzuek inguru seguruago edo irisgarriagoa sortuko duten pertsona guztientzat, batez ere emakumeentzat, esku hartzeko adiskidetsuagoak diren espazioak eratuz.

d) Sexu-genero disidenteen inklusioa

Eskuragai dauden datuen arabera, ez da ageri sexu-genero disidenterik dagoenik IEKen osaeran eta partaidetzan. Gizartean dagoen aniztasuna islatzea falta dela adieraz lezake horrek. Hori horrela, gomendagarria litzateke sustatzea entitateek baloratu dezatela profil desberdinak sartzeko aukera.

e) Hizkuntzaren erabilera inklusiboa komunikazioetan eta saioetan

Nahiz eta aurrerapenak egon diren hizkuntza idatzian, formula inklusiboak eta neutralak erabili baitira, batzuetan esku-hartzeetan maskulino generikoa erabiltzen da. Horretarako, hizkuntza inklusibo espezifikoko jarraibideak eman daitezke kontseilurako, bileren hasieran gaia gogorarazteaz gain.

6. AZTERKETA, HIZKUNTZA-IKUSPEGIA APLIKATUTA

IEK Euskal Autonomia Erkidegoko egitura instituzionalaren parte denez, bere funtzionamenduak lagundu egin behar du euskararen hizkuntza-normalizaziorako helburuak betetzen. Eskakizun hori jasotzen du IEKen urriaren 22ko 307/2024 Dekretuaren 16. artikuluak.

6.1. Azterketa

a) Dokumentazioa

Kontseiluaren dokumentazio orokorra (deialdiak, aktak eta komunikazio administratiboak) sistematikoki bidali da euskaraz eta gazteleraz. Hala ere, gai-zerrendako puntuei lotutako dokumentazioa —proposamen teknikoak edo aurkezpen-materialak— nagusiki gaztelaniaz banatu da, eta, batzuetan, bertsio elebiduna eman da.

Kontseiluko kideen idatzizko ekarpen gehienak ere gazteleraz aurkeztu dira. Entitate bakar batek igorri ditu bere agiriak euskara hutsean, eta beste batek bi hizkuntzetan.

b) Ahozko erabilera bileretan

Bilera guztiak egin dira gazteleraz, baina kasu batzuetan agurrak edo sarrera laburrak sartu dira euskaraz. Hainbat saiotan, ahozko azalpena gaztelaniaz izan arren, aurkezpen bisualak (ppt.) euskaraz egin ziren, eta, hala, hizkuntzaren nolabaiteko presentzia bermatu da maila bisualean.

Ez da berariaz eskaini euskaraz esku hartzeko aukera, eta ez da aldi bereko itzulpen-sistemarik gaitu, bi hizkuntzen erabilera orekatua ahalbidetzen duenik. Partaideetako askok bi hizkuntzak menperatzen dituzte, eta idatziz euskaraz komunikatzen dira, posta bidez. Ondorioz, ahozkoan gutxi erabiltzeko arrazoia gehiago da funtzionamendu-dinamiken ondorioa, hizkuntza-mugena baino.

c) Hizkuntza-irisgarritasuna

Aldi bereko interpretaziorako mekanismorik ez egoteak oztopoak sor ditzake euskara bere osotasunean erabiltzeko. Egoera horren ondorioz, euskara dokumentazioaren eremu formalera zokoratuta geratu daiteke, ahozko komunikazioan benetako presentziarik izan gabe.

6.2. Jardunbide egokiak eta hobekuntza-arloak

Antzemandako jardunbide egokien artean nabarmentzekoa da idatzizko komunikazio instituzionaletan elebitasuna bermatzen dela eta entitate batzuk prest daudela beren ekarpenak euskaraz aurkezteko. Halaber, positiboa da, modu mugatuan bada ere, euskarazko agurrak edo sarrerak sartu izana bilera batzuetan.

Hala ere, kontseiluaren funtzionamenduan oraindik ere urria da euskararen presentzia bai ahozko erabileran bai gai-zerrendako puntuen dokumentazioan. Ikusitako horren ondorioz, **erronka** hauek identifikatzen dira:

- Dokumentazioa bi hizkuntzatan egon dadin sustatzea.
- Kontseiluaren bileretan euskararen ahozko erabilera normalizatzea.
- Hizkuntza-irisgarritasuna bermatzea, babes-sistema egokien bidez.

Erronka horiekin bat, **hobekuntza-proposamen** hauek proposatzen dira:

- Aurrera egitea gai-zerrendako puntuekin batera doazen agiriak sistematikoki itzultzeko bidean.
- Aztertzea aldi baterako interpretaziorako aukerak, bi hizkuntzetan parte har daitekeela bermatzeko.
- Kultura partaidea sustatzea, euskaraz naturaltasunez esku hartu ahal izateko.

7. AZTERKETA, INGURUMEN-IKUSPEGIA APLIKATUTA

2025ean, IEKen jarduerak ingurumen-inpaktu txikia izan du, baliabideen erabileran jasangarritasuna eta eraginkortasuna sustatzen duten praktikei esker.

7.1. Azterketa

a) Online saioak eta emisioen murrizketa

Kontseiluaren bileretako asko formatu telematikoan egin dira. Horri esker, partaideak lekualdatzea saihestu ahal izan da. Praktika horrek zuzenean lagundu du CO_2 emisioak murrizten eta organoaren karbono-aztarna gutxitzen.

b) Hondakinen kudeaketa eta plastikoaren kontsumoaren gutxitzea

Aurrez aurreko saio gehienetan, ez dira plastikozko edo erabilera bakarra duten beste material batzuetako botilak banatu, eta, beraz, beharrezkoak ez diren hondakinak sortzea saihestu da. Praktika horrek inguru jasangarriagoa lortzen laguntzen du.

Aurrez aurreko bilera oso gutxitan erabili dira plastikozko botilak ura hornitzeko. Botila horiek era egokian birziklatu dira, eta sobratu den ura landareak ureztatzeko aprobetxatu da, hartara alferrik galtzea murriztuz. Hala ere, praktika horren ordez erraz asko erabili ahalko lirateke edalontzi berrerabilgarriak edo ur-pitxerrak, eta, hala, aurrera egingo litzateke ingurumen-ikuspegitik guztiz jasangarriak diren bileren eredu bat lortzeko bidean.

c) Dokumentazio elektronikoaren erabilera

Kontseiluaren material guztiak, bai gai-zerrendako puntuak, bai txosten eta aktak, bitarteko elektronikoetatik kudeatu dira, erabat. Ez da kasu batean ere banatu paperezko dokumentaziorik, eta, beraz, murriztu egin da baliabide naturalen kontsumoa.

7.2. Jardunbide egokiak eta hobekuntza-arloak

2025ean, ingurumen-jardunbide egoki nagusiak hauek izan dira: dokumentazioa osorik elektronikoki kudeatzea, aurrez aurreko bileretan erabilera bakarreko materialen erabilera murriztea eta sortutako hondakinak era egokian kudeatzea. Horri esker, murriztu egin dira baliabideen kontsumoa eta organoaren ingurumen-aztarna, bere funtzionamenduaren kalitateari eragin gabe.

Hobekuntza-arlo hauek identifikatu dira:

- Aurrez aurreko bileretan, guztiz ezabatzea plastikozko botilen erabilera, eta, haien ordez, sistema berrerabilgarriak baliatzea. Horrez gain, partaideei gogorarazi ahalko litzaieke, bilera bakoitza deitzean, ekar ditzatela beren ur-botila berrerabilgarriak.

- Aurrez aurreko bileretan, ibilbide pribatuaren erabilera partekatua sustatzea bertaratzen diren pertsonen artean, murrizteko banakako lekualdaketa kopurua eta haiei lotutako emisioak. Era berean, garraio publikoaren erabilera sustatu liteke, lehentasuna emanez ondo komunikatuta dauden kokapenei eta aukera hori gogoraraziz deialdietan, mugikortasun jasangarriaren neurri osagarri gisa.

8. ONDORIOAK

- 2025ean, IEKek bere egitura eta funtzionamendua finkatu ditu, eta mugarri esanguratsuak lortu ditu, besteak beste batzorde iraunkorra eratuta edo ibilbide partekatuen lehen lantaldea sortuta. Era berean, aurrera egin du digitalizazio administratiboan, espediente elektronikoa sartuta Tramitagune plataforman.

- Jarduera aztertuz gero, 12 bilera egin dira (osoko bilkurak 6, batzorde iraunkorrak 2 eta lantaldeak 4), eta deialdi gehienetan bertaratze-mailak % 70etik gorakoak izan dira. Datu horiek erakusten dute entitate partaideek konpromisoa dutela eta IEK garrantzitsua dela gobernantza-espazio gisa.

- Bertaratze-maila altua izan arren, esku-hartzeak urriak izan dira, kide gutxi batzuek eginak. Osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren bileretan, 22 pertsonak egindako 46 esku-hartze erregistratu ziren, hau da, partaidetza baxua izan da kide guztiak kontuan hartuta.

- Bilera telematikoetan zailtasun teknikoak egon dira; bestalde, osoko bilkuraren bileretan erabilitako aurrez aurreko espazioek ez dute horizontaltasuna erraztu, bilera-espazioaren konfigurazioagatik, eta, beraz, dinamikak ez dira oso partaideak izan.

- Genero-azterketak islatzen du ezen, nahiz eta kontseiluaren osaerak neurri handi batean betetzen duen ordezkaritza orekatua, partaidetza eraginkorrean desberdinkeriak azaltzen direla. Kide gehienak eta bertaratzen gehienak emakumeak dira, baina gizonek esku-hartze gehien egiten dituzte; horrek agerian jartzen du arrakala bat dagoela hitza hartzean. Era berean, ez da identifikatu sexu-genero disidenterik dagoenik.

- Hizkuntza-irisgarritasunari erreparatuta, bilera guztiak egin dira gazteleraz, eta ez da aldi bereko itzulpenik eskaini. Horrek mugatu egiten du bi hizkuntzatan parte hartzea. Komunikazio elektronikoak, bestalde, beti egin dira bi hizkuntzatan.

- IEKen jarduerak ingurumen-inpaktu txikia izan du, saio telematikoak erabili direlako, dokumentazioa elektronikoki kudeatu delako eta hondakinak gutxitu direlako. Hala ere, hobetzeko tartea identifikatu da.

9. ERANSKINAK

9.1. I. ERANSKINA – Osoko bilkuraren osaera

TITULARRA	ORDEZKOA
Burua	
Mikel Torres Lorenzo, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua	Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusio sailburuordea
Idazkaria	
Karla Agirre Aranburu, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa	Unai Zabaleta Munduate, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren arduraduna
EUSKO JAURLARITZA	
Enplegua	
Francisco Pedraza Moreno, Lanbideko zuzendari nagusia	María Aránzazu Martínez Tobalina, Enpleguko zuzendaria
Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusio sailburuordea	Sara Buesa Rodríguez, Inklusio zuzendaria
Hezkuntza	
Jon Mirena Labaka Intxausti, Lanbide Heziketako sailburuordea	Isabel Mendiguren Laca, Ikaskuntza Berezien zuzendaria
Gizarte-politikak	
Ana Belén Otero Miguélez, Ongizateko sailburuordea	Marian Olabarrieta Ibarrondo, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendaria
Itziar de la Peña Laustalet, Hirugarren Sektorearen Sustapeneko eta Gizarte Ekintzako zuzendaria	José María Ezkerra Fernández, Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren zuzendaria
Osasuna	
Gontzal Tamayo Mendel, Osasun Eraldaketarako sailburuordea	Aritz Uriarte Fuentes, Gobernantzako eta Iraunkortasun Sanitarioko sailburuordea
Etxebizitza	
Miguel de los Toyos Nazabal, Etxebizitzako sailburuordea	Patricia Val Hevia, “Alokabide SA” sozietate publikoko zuzendari nagusia
Mario José Yoldi Domínguez, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria	Saioa Beistegui Liberal, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko etxebizitza-aholkularia
FORU-ALDUNDIAK	
Arabako Foru Aldundia	
Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiketako foru-diputatua	María Carmen Diez Bermejo, Esku-hartze Sozialaren Arloko zuzendariorde teknikoa
Miren Saratxaga de Isla, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria	Begoña Moraza Berasategui
Gipuzkoako Foru Aldundia	
Maite Peña López, Zainketa eta Gizarte Politiketako Saileko foru-diputatua	Iker Aldazabal Basauri, Plangintzako, Inbertsioetako, Ikuskapeneko eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia

María Jesús Belén Larrion Cortabarria, Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko zuzendari nagusia	Irune Galarraga Ezenarro, Zentroen Kudeaketa Integraleko zuzendari nagusia
Bizkaiko Foru Aldundia	
Maria Teresa Laespada Martínez, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasuneko foru-diputatua	Trinidad Lourdes Vicente Torrado, Berdintasuneko zuzendari nagusia
Oscar Seco Revilla, Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia	Ignacio Rodriguez Puertas, Gizarte Kohesioko zuzendari nagusia
UDALERRIAK	
Gorka Álvarez Martínez, Sestaoko alkatea	Txerra Molinuevo Laña, Amurrioko alkatea
Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, Durangoko alkatea	Natividad López de Munain Alzola, Burgeluko alkatea
Rocío Vitero Pérez andrea, Gasteizko zinegotzia	María del Río Pereda, Bilboko zinegotzia
Oihane Henales Zarraga, Sestaoko zinegotzia	Olaia Durarte López, Donostiako zinegotzia
María José Blanco Gavieiro, Portugaleteko zinegotzia	Laura Fernández Fernández, Amurrioko zinegotzia
Aitor Larrinaga García, Balmasedako zinegotzia	Ruth Martínez Sánchez, Etxebarriko zinegotzia
SINDIKATUAK	
Josefina Roco Sanfilippo, LAB	Miriam Diaz de Tuesta, LAB
Janire Landaluze Pérez, ELA	Aitor Murguia Esteve , ELA
Marili Granado Mendez, UGT	Xuria Arza Velez, UGT
Oscar Arenas Velasco, CCOO	Gregorio Martín Benito, CCOO
PATRONALA	
Virginia Múgica	Amaia López Iriondo
Nerea Zamacola	Jose Miguel Ayerza
Fernando Raposo	Charo Bazán
Gonzalo Salcedo	Ibane Muniategi
HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA	
Alfonso López, EAPN	Juan Luis Fuentes Nogales, EAPN
Karmele Artaraz Etxebarria, HIREKIN	Cristina Rojo García, HIREKIN
Rosa Gil, GIZATEA	Joana Revilla, GIZATEA
Pablo Moratalla Santamaria, EHLABE	Eli Zurutuza Ortega, EHLABE
Zaloa Pérez Hernandorena, REAS	Silvia Piris Lekuona, REAS
Mikel Malcorra Ochotorena, ELKARTEAN	Blanca Esther Pinedo Gallego, ELKARTEAN
Valeria García-Landarte, FEVAS Plena Inclusión Euskadi	Txema Franco, FEVAS Plena Inclusión Euskadi
Mª José Cano, Buru Osasuna Euskadi	Amaia Arbaiza, Buru Osasuna Euskadi
Soraia Chacón, Harresiak Apurtuz	Naiara Vink, Harresiak Apurtuz
María del Coro Valle, EUSKOFEDERFEN	María Ángeles Reguero, EUSKOFEDERFEN
Elena Blanco Meruelo, Sareen Sarea	Naiara Vink, Sareen Sarea
Elsa Fuente Do Rosario, UNICEF – EAEko batzordea	Marga Moran Rodríguez, UNICEF – EAEko batzordea
KONTSUMITZAILEAK ETA ERABILTZAILEAK	
Jose Luis Nabaskues Simon, EKA	Arantza Lopez Molpeceres, EKA
ELKARGO PROFESIONALAK	
Gizarte-lana	

Laura Marín Sodupe, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa	Maitane Martínez Lekerika, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa
Psikologia	
Itxaso Oiarzabal, Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofiziala	Roberto Baena Pedraza, Arabako Psikologoen Elkargo Ofiziala
Gizarte-hezkuntza	
Patricia Cardeñosa Iglesias, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa	Sara Daniela Rodrigues Viana, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa
KONFEKOOP	
David Tellería Herrera	Juan Manuel Cano Perez

9.2. II. ERANSKINA – Batzorde iraunkorraren osaera

TITULARRA	ORDEZKOA
Burua	
Mikel Torres Lorenzo, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua	Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusio sailburuordea
Idazkaria	
Karla Agirre Aranburu, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa	Unai Zabaleta Munduate, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren arduraduna
EUSKO JAURLARITZA	
Enplegua	
Francisco Pedraza Moreno, Lanbideko zuzendari nagusia	María Aránzazu Martínez Tobalina, Enpleguko zuzendaria
Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusio sailburuordea	Sara Buesa Rodríguez, Inklusio zuzendaria
Gizarte-politikak	
Ana Belén Otero Miguélez, Ongizateko sailburuordea	Marian Olabarrieta Ibarrondo, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendaria
FORU-ALDUNDIAK	
Miren Saratxaga de Isla, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria	Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiketako foru-diputatua
UDALERRIAK	
Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, Durangoko alkatea	Gorka Álvarez Martínez, Sestaoko alkatea
SINDIKATUAK	
Janire Landaluze Pérez, ELA	Aitor Murguia Esteve , ELA
PATRONALA	
Virginia Múgica	Amaia López Iriondo
KOOPERATIBAK	
David Tellería Herrera	Juan Manuel Cano Perez
HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA	
Alfonso López, EAPN	Juan Luis Fuentes Nogales, EAPN

Karmele Artaraz Etxebarria, HIREKIN	Cristina Rojo García, HIREKIN
Pablo Moratalla Santamaria, EHLABE	Eli Zurutuza Ortega, EHLABE
Mikel Malcorra Ochotorena, ELKARTEAN	Blanca Esther Pinedo Gallego, ELKARTEAN
ELKARGO PROFESIONALAK	
Itxaso Oiarzabal, Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofiziala	Roberto Baena Pedraza, Arabako Psikologoen Elkargo Ofiziala

9.3. III. ERANSKINA – Ibilbide partekatuen lantaldearen osaera

Burua	
Sara Buesa Rodríguez, Inklusio zuzendaria	
Idazkaria	
Karla Agirre Aranburu, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa	
EUSKO JAURLARITZA	
Enplegua eta Inklusioa	
Amaia Astola Corres, Inklusioko teknikaria	
Ane Paguey Colmenero, Inklusioko teknikaria	
Etxebizitza	
Leire Alvarez de Eulate, Alokabideko Gizarte Laguntza Arloko zuzendaria	
Gizarte-politikak	
Ignacio Fariña Sarasqueta, Etorkinen Harrera eta Integrazioko zuzendaria	
Itziar de la Peña Laustalet, Hirugarren Sektorearen Sustapeneko eta Gizarte Ekintzako zuzendaria	
Osasuna	
María del Carmen Álvarez Zubizarreta, Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	
Hezkuntza	
Isabel Mendiguren Laca, Ikaskuntza Berezien zuzendaria	
Lanbide	
Álvaro Ugarte Gomez, Prestazioen eta Inklusioaren zuzendaria	
Ander Rodríguez Lejarza, Inklusioko teknikaria	
FORU-ALDUNDIAK	
Titularra	**Ordezkoa**
Arabako Foru Aldundia	
Yolanda Montero Enriquez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Programa Sektorialen koordinatzailea	Eduardo Peña Ortiz de Zárate, GOFEko Esku-hartze Sozialeko teknikaria
Gipuzkoako Foru Aldundia	
Belen Larrion, Haurren Babeseko, Gizarte Inklusioko eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistaren Arretako zuzendari nagusia	Iker Uson, Gizarte Inklusiorako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistaren Arretarako Zerbitzuaren burua
Bizkaiko Foru Aldundia	

Oscar Seco, Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia	Elisa Zugazaga, Gizarte Inklusiorako Zentro eta Programen Ataleko burua

UDALERRIAK
Jaione García Santesteban, Donostiako Udala
Goizalde Arrieta Echeita, Bilboko Udala
Izaskun Caldero, Gasteizko Udala
Patxi Arrazola, Errenteriako Udala
Garbiñe Astoreka, Leioako Udala
EUDELeko ordezkaria
KONFEKOOP
Andoni Zulaika
HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA
Pablo Moratalla Santamaria, EHLABE
Karmele Artaraz Etxebarria, HIREKIN
Alfonso López, EAPN